

KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO GAITASUN DIGITALEN ZIURTAGIRIA ARAUTZEN DUEN XXXXAREN XX(E)KO XX/XXXX FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA EGIN AURREKOA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, erregelamendu baten proiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritziduten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen herritarrek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21.1c artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitaratu eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.

Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritzi gero, igor ditzakete planteatutako arau-proposamenaren gainean dituzten ekarpenak.

Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun balioduneko da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.

A) Ekimenarekin zein arazo konpondu nahi diren

Espainiako Gobernuak Gaitasun Digitalen Plan Nazionala argitaratu zuen 2021ean. Erreferentzia-esparru bat da, eta aurrerapen garrantzitsua ere bai, herritarrei ezagutza eta trebetasun digitalak emateko beharri balioa emateari dagokionez, *“ezagutzaren gizartean bizitzea, ikastea eta lan egitea”* ahalbidetzeko.

Gaitasun digitalen oinarritzko maila batek aukera ematen die herritarrei beren eskubideak erabat baliatzeko, administrazio elektronikorako sarbide osoa izateko eta lan-eremuan aplikatzeko.

Herritarrentzako Gaitasun Digitalen Europako Esparruak (DigComp) hizkuntza komun bat ematen du gaitasun digitalen funtsezko arloak identifikatzeko eta deskribatzeko, eta helburu du herritarren ezagutza eta trebetasun digitalak hobetzea. Bada, esparru hori erreferentziatzat hartuta, beharrezkoa da gaitasun digital horiek hainbat mailatan egiaztatze eta aitortze aukera ematen duen tresna bat izatea, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza-sisteman eta lan-eremuan (publikoan eta pribatuan) aplikatzen ahalko dena.

B) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den

Arauaren egokitasuna justifikatzeko, gaitasun digitalak ziurtatzeko sistema bat eskaini behar da, herritarrek eta gizarte-eragileek estandar bat partekatu ahal izan dezaten pertsonen trebetasun digitalak ezagutzeko, haien eskubideen esparruan, administrazio elektronikorako erabateko sarbidea izateko eta lan-merkatuan erabiltzeko.

Era berean, gure herritarrei eta gizarte-eragileei ziurtapen-sistema bat eskaini behar zaie, bat datorrena Europako DigComp esparruarekin eta Europako Batzordearen Joint Research Consortium (JRC) delakoak bultzatutako *European Digital Skills Certificate* (EDSC) ziurtapen-esparruarekin.

JRCren EDSC kalitate-estandar gisa planteatzen da, administrazioei egungo gaitasun digitalen ziurtagiriak sortzea edo egokitzea ahalbidetuz eta sustatuz, eta de facto EBren lurralde osoan erabil daitekeen ziurtapen-sistema bat ezarriz.

C) Arauaren helburuak

Arauaren helburua da arau-esparru bat ezartzea ziurtapen-sistema ofizial bat arautzeko, Europako estandarrarekin bat datorrena, pertsonen trebetasun digitalak aitortu eta egiaztatzeko. Horretarako, neurri estandar eta elkarreragingarri bat emanen da, eremu publikoan eta pribatuan aitortzen ahalko dena, bai autonomia-erkidego bakoitzean, bai estatuko gainerakoetan.

D) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aukera arauemailea besterik ez dago; izan ere, foru dekretua onestearen helburua da Gaitasun Digitalen Plan Nazionalaren ardatzetara eta jarduera-ildoetara egokitzea, bai eta Nafarroako Gobernuaren Inklusio eta Gaikuntza Digitaleko Planaren ekimenetara ere.

Sarrigurenen, 2023ko irailaren 25ean. Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuko zuzendaria

Sinadura jatorrizkoan dago.